



IRAULTZA TXIKIEN AKANPADA

*Herri mugimenduek
elkar indartzeko
espazioa*

Euskal Herriko herri mugimendu ugaritako kideen eta bestelako gizarte eredu baten alde borrokan ari diren herritarren plaza bihurtu da iragan den asteburuan Gipuzkoako Zubieta herria. Lurralde Askea kolektiboak deitutako Iraultza Txikien Akanpada egin dute.



Maddi Txintxurreta Agirregabiria

@mtxintxurreta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Instituzioek begiz jota duten herrian, erraustegiaren eta makro-kartzelarekin gutxi ez, eta kuartel militar berri baten mehatxupear den Zubietan hartu du lur Iraultza Txikien Akanpadak aste-buruan. Bere burua “ongi bizitzearen euskal errepublika ipar duten lagunen kolektibo txikia” gisa definitzen duen Lurralde Askea komunitateak antolatatu du egitasmoa, herrigintzako beste hainbat eragilerekin batera.

Zubietako kanpaldiak Euskal Herriko herri-mugimenduetan borrokan diharduten pertsonak elkar ezagutzea eta beraien artean saretzea izan du helburu, jakintzaren, beharren eta estrategien kolektibizazioa ardatz. Horrela, eskualde ugaritako eta jatorri militante anitzeko herritarrak elkartu dira. “Azkenengo urteetan, sumatzen da Euskal Herrian badaudela kapitalismotik eta patriarkatutik kanpo bestelako alternatibak eraikitzeko aurrera-pausoak ematen ari diren herri-mugimenduak, baina badirudi nahiko atomizatuta daudela. Kanpaldi hau kolektibo horiek sartzeko saiakera izan da”, azaldu du Irati Tobar Eguzkitza kanpaldiko antolatzaileetako batek. Zubietan espazio antipatriarkal, antikapitalista, komunitarioa, autoeratu, autokritikoa, borrokalari eta alai bilakatzen saiatu dira hiru egunez. “Esperimentu bat izan da, eta ikusi dugu oso harrera ona izan duela. Herri mugimendu edo borroka ugaritan aritzen diren kideen sentsazioak jaso nahi genituen, eta badakigu harreman sare bat sortu dugula. Horrek ez du esan nahi bestelako eredu baten alde egingo duen komunitatea guztiz eratuta dagoenik, eta aurrera begira harreman sare hau nola elikatu asmatu beharko dugu”, iritzi du Tobarrek.

Irailaren 21ean, ostirala, abiatu dira “ongi bizitzeko hiru egunak”. Lo-zakuak besazpian hartuta hasi zen agertzen jendea arratsalde partean, Zubietan gertatuko zenaren jakin-minez eta gogoz. Galderak zekartzan jendeak, eta galderak izan ziren kanpaldiko abiapuntua. Jakintza kolektibizatzea eta arnas luzeko gogoeta bultzatu dituzte uneoro, eta hitzaldiak eta mahai-inguruak izan dira horretarako tresna. Ostiralean izan zen lehen mahai-ingurua, “*Lurrikaren erdian gu berri bat?*” izenekoa, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta, Emakumeen Mundu Martxa eta Amankomunak sarearekin.

Plazaratu den gai-zerrendaren sailkapena eta kanpaldiaren gida-lerroa lau bloketan fokatu nahi izan dituzte, antolakuntzako kide Odile Arrieta Lakak azaldu bezala: “Batetik, herri mugimenduek edo bestelako Euskal Herri bat amesten dugun kolektiboek zein zapalkuntza pairatzen ditugun identifikatu dugu. Bestetik, zapalkuntza horiek gaintzeko garatu ditzakegun estrategia komunak aurkeztu ditugu; konspiratu dugu boterearen aurrean zertarako gai izango ginatekeen guztiok batuz gero, eta azkenik, ekintza bat, erraustegiaren aurkako martxa”.

Kolektiboan berrasmatzen

Kultura politikoa berrasmatzeko eta hostoberritzeko beharra azaleratu da etengabe, eta horrek subjektu politikoek eta kolektibo desberdinek boterearen aurkako borrokan zer espazio hartzen duen birplanteatzera eraman ditu Zubietara hurbildu direnak. Kolektiboan pentsatzen jarrita, nola eraiki “gu” politiko berri bat, maila nazionalen zein tokikoan eragingo duena? Nondik eta zer zilegitasunekin saiatzen gara hegemonia apurtzen? Nola josi herri-mugimenduetako zaintza sareak?

“Gu” berri hori sortzeko prozesua “luzea” dela dio Arrietak: “Komunitatea eratzeko oinarri batzuk finkatzen ari gara guztion artean, eta ondoren ikusiko dugu hemendik ‘gu’ berri bat edo asko sortuko diren”. Bestalde, identitatearen eraikuntzan “militantzia likido” deritzenaren oreka ezinbestekotzat jo da, kanpaldian bertan ikusi denez joan-etorriak etengabeak izaten baitira militantzian. “Joan-etorri horien oreka lortzeko komunitate sendo bat behar dugu. Gaur egun herri mugimenduetan saiatzen gara zaintza pertsonala babesten, baina mugimenduaren zaintza ere egin behar dugu, eta oinarri sendoak sortu, etsaia ere sendoa delako”, iritzi du Tobarrek. Bilgune Feministako Saioa Iraolak gako batzuk eman zituen igande goizean, “*Jendarte likidoa, militantzia likidoak?*” saioan: “Biluztuz jantzi, artikulatu eta errora jo”. Hau da, subjektu politikoaren eta aniztasunaren kudeaketa, mugimenduaren antolaketa eta politika erradikaletatik ekitea.

Aniztasuna hizpide, larunbat arratsaldean Euskal Herriko subjektu politiko orokortuaren analisia egin zuten, “Behetik eraldatzen, mugimendu txuri

klase ertainekotik?” mahai-inguruan. Mugimendu feministako ekintzaile kolonbiar Gladys Giraldo, Ongi Etorri Errefuxiatuak eta Feministaldiko kide Anabel Sanz eta Munduko Emakumeak “Babel”-eko Afaf Al Haoui izan ziren gonbidatuak. Eztabaidatu zuten nola ordezkatzeko den aniztasuna Euskal Herriko herri-mugimenduetan, eta zalantzan jarri zen mugimendu txuri eta klase ertainekoak kapitalismoaren eta patriarkatuaren aurkako borrokan duen zilegitasuna.

Larunbat goizean “Bizitza burujabetza: alternatibak ezagutzen eta saretzen” mahai-inguruan egun Euskal Herriko boteretik eraikitako sistemaren bazterretik dagoeneko lanean diharduten proiektu ugari aurkeztu zituzten, eta erakutsi konspiratutakoa errealitate bihurtzeko daitekeela. Abaraskak etxebizitzaren jabetza pribatuarekin bukatzea aldarrikatu zuen, Orduñako trantsizio agro-ekologikoa azaldu zuen Marijo Imazek, Mbolo kooperatibako migranteek garbiketa kooperatiba sortzeko ideia azaldu zuten, Garestik joandakoek herriko errotaren bitartez energia burujabetzarako bidea azaldu zuten, Koop57k pertsona erdigunean jartzen duen finantza zerbitzua aurkeztu zuen, Arteako Bentan errefuxiatuekin komunitatea nola sortzen ari den azaldu zuten eta Bartzelonako Sants auzoko ibilbide kooperatibo eta eraldatzailea aurkeztu zuten azkenik.

Zortzi hitzaldi eta mahai-inguru egin dituzte guztira, eta aipatutakoez gain askotariko gaiak landu dira bertan: herri mugimenduen eta instituzioen arteko harremanak, eraso matxistak kolektibo sozialetan, burujabetza esperientziak lurraldean nola txertatu eta Kataluniako prozesua, besteak beste.

Iraultza Txikien Akanpadak Euskal Herriko txoko ugaritako eta militantzia esparru anitzeko pertsonak bildu ditu Zubietan, eta ezin zuten elkarrekin konspiratzeko aukera galdu. Larunbat arratsaldean “konspirazio erraldoia” egitera deitu zuten Bizitza da Handiena dinamikako kideek dinamizatuta, eta eskualdeka talde txikitik banatuta, tokian tokian egin daitezkeen ekintzak pentsatu zituzten, “Zer? Nola? Noiz?” galderari erantzunez. Bertan esandakoak gauzatzeko derrigortasunik gabe, hor atera ziren ideia zaparrada, Euskal Herri mailan, lokaletik abiatuta eragile so-



Lehen argazkian, herri mugimenduen eta instituzioen arteko harreman korapilatsuak mahai ingurua. Bigarrenean, haur batzuk jolasean. Hirugarrenean, erraustegia gelditu daitekela erakutsi zutenei aitortza.

zialak antolatzen joateko beharra eta kideen arteko harreman sareak.

Konspirazio eta gogoetatik harago, aisialdirako tarterik ere izan da Zubietan. Ostiral gauean Erradikalak gara! bertso-antzezlanaren Nerea Arriola aktorearen Buruhaustea bakarriketa, arratsaldean *Thoreauren inguruan musika poesia eta misterioa* performancea eta larunbat gauean Pobresiak poesia emanaldia eta Rukularen kontzertua.

Umeez ere erabakimena

0 eta 99 urte bitarteko jendea elkartzea zen Iraultza Txikien Akanpadaren asmoa, eta iraultzaile txikiek euren espazioa izan zuten kanpaldian. Ez dira izan kanpaldiaren kontsumitzaile soilak, antolatzaileak baizik. Beraiek ere asanbladak egin dituzte, zertan jolastu eta zertan lagundu erabakitzeko. “Oso polita izan da haurrei erabakitzeko eskubidea ematea. Jolasten, pankartak egiten, mahaia jartzen eta beste mila gauza egiten aritu dira, kanpaldia aurrera atera ahal izateko”, azaldu du Arrietak.

Ideietatik ekintzara

“Kanpaldiak, bizimodu komunitarioa eraikitzeaz gain, praktikan ekintza bat egitea zuen helburu, Euskal Herrian gaur egun aktibo dagoen borrokaren batean eragitea. Horrexegatik egin da kanpaldia Zubietan, erraustegiaren eta makro-kartzelaren aurkako mugimendu indartsua sortu delako. Zubietan hiltzen ari dira eta bultzada bat eman nahi izan diogu horren aurka borrokan ari den mugimenduari”, esan du Irati Tobar Eguzkitzak.

Horrela, Iraultza Txikien Akanpadari bukaera emateko, Zubietako erraustegi proiektua aurreko legegintzaldian geldiarazi zuten arduradun politikoei orain arte jaso gabeko aitortza egin zieten.

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduko ordezkariek oholta gainera deitu zituen lehenik gaikako bilketa orokortuan ezartzen aitzindariak izan ziren udal-tako orduko alkate edo zinegotziak: Xabier Mikel Errekondo (Usurbil), Marian Beitialarrangoitia (Hernani), Enrike Lekuona (Oiartzun) eta Joxemari Iturbe (Antzuola). Horiekin batera, San Marko mankomunitateko aginte postuetatik ahalegindu ziren Ricardo Ortega (Lasarte-Oria) eta Imanol Azpiroz (Usurbil). Bestetik, 2011-2015 legealdian Gipuz-



koako Foru Aldundiko eta GHK kontsorzioaren proiektua bertan behera utzi zuten agintariak: GHKko lehendakari zen Ainhoa Intxaurrendieta eta Gipuzkoako Foru Aldundian Ingurumen diputatu izandako Juan Jarlos Alduntzin eta Iñaki Errazkin. “Denis [Itxaso], [Jose Ignacio] Asensio, Markel Olano, [Karlos] Ormazabal... Soldatak enbargatuko dizkiguzue, behar bada etxea kenduko diguzue. Azken finean, etorkizuna lapurtu nahi diguzue. Baina egindakoa-rekin harro gaude. Eta, entzun, harro eta ozen esango dizuet: berriro ere geldituko dugu erraustegia. Gure amonen etxeak iraunderu zutik! Gora Zubietal!”, bota zuen zorrotz Intxaurrendietak.

Azkenik, Gipuzkoa Zutik kolektiboak deituta erraustegira martxa egin zuten. Antolakuntzatik biolentziarik ez zela erabiliko eta desobediencia zibila praktikan jartzera zihoazela gogorarazten ari ziren bitartean, adin guztietako ehunka pertsonak buzo zuriak jantzi zituzten eta martxa abiatzeko prestatu ziren. Ertzaintzaren helikopteroak gertutik jarraitu zituen manifestarien pausu guztiak.

Bi zutabetan banandu zen martxa mendiaren magalean, eta zutabe bakoitzak bere bidea hartu zuen. Berdez apaindutako erraustegira gerturatu ziren bi blokeak, baina martxa geldiarazteko polizia dispositibo zabala prest zegoen herritarrak iritsi orduko, mendi-bide guztiak itxiz. Erraustegia-aren albora iristea lortu zuen zutabeari eraso egin zion Ertzaintzak. Jarrera oldarkorra erakutsi zuten, borra-kolpeak eta bultzakadak egon ziren, eta hainbat zauritu eraginez. Ertzaintzaren jarrerak, ordea, ez zituen apaldu jendearen indarrak. “Lortu dugu agerian uztea beraien negozioa zer indarkeriarekin ateratzen duten aurrera”, adierazi zuten Zubietako plazara jaitsi zirenean.

ITAre irakaspenak

Zubietak gainezka egin du, Iraultza Txikien Akanpadako antolatzaileen aurreikuspen guztiak gaindituz. “Gu txikitasunetik abiatu ginen, eta kudeaketan nabaritu dugu gainezka egin dugula, azkenean ondo antolatuta aurrera egitea lortu badugu ere”, esan du Tobarrek.

Ongi bizitzeari eskainitako hiru egunak ilusioz igaro dira, aliantzak eraiki-

Bi zutabeetako bat erraustegia egiten ari diren eremura heldu zen. Bide moztan ikus daitezkeen ertzainak, azkenean, herritarren aurka oldartu ziren hainbat lagun zaurituz.

tzen jarraitzeko gogoz. Bertaratutakoek jarrera parte-hartzailea erakutsi dute, bai antolatutako ekimenetan eta baita kanpaldia aurrera ateratzeko lanetan ere. Mamuak eta kezkek ere izan direla aipatu du Tobarrek: “Botere harremanak eta sistemak eraiki dituen zapalkuntzak ez daude gugandik kanpo, baina, hala ere, oso garrantzitsua da egoera horiek esplizitatu egin direla”. Arrietak, bestalde, esan du horrelako ekimenetan “zaila” izaten dela aisialdiari balorea ematea, “edukia” osatzera bideratzen baitira normalean indar gehienak. Hala ere, antolakuntzako kide biek nabarmendu dute “horrelako espazio baten” beharra zegoela, eta esperientzia “oso positiboa” izan dela. Iku-siko da behetik gora antolatzen ari den komunitate honen hurrengo urratsak zein izango diren. ■